

# HIL BERRIAK

JOANES CHABAGNO

(1881 — 1975)

1975eko apirilaren 11-an zendu zitzaikun Aita Joanes Chabagno euskaltzain-laguntzailea, Montbétou-eko apez xahartegian.

Baxenabartarra zen, Aldude - Xobroenean sortua 1881-eko abenduaren 10-ean.

Larresoroko Seminarioko ikasle ohia zen.

Ikasgoak bururatu zituen Paris-eko "Missions Etrangères" deitu lagundian.

1906-ean apeztu-eta Japoniarat joan zen missionest (1) gazteak ahaidedizkideri egin adioak.

Tokyo-tik Aita Chabagno-k ez zuen Euskal-herria ahanzten. **Eskualdun ona eta Eskualduna** astekarietan asko berri ager-arazten zuen euskaraz bere mintzaira aberats eta garbian.

Iparreko euskal-herrietan eritasun gaixtoak gaztain-ondoak funditu zituelarik, harek igorri zituen Japoniako gaztain zailak hunarat hel-arazi hazitako, gaztaina ez zadin ondarra gal gure lurretan.

Zortzi urte Japonian iragan-eta, Paris-eko buruzagiek beren arterat bildu zituen, morala erakasle gisa, bai eta lagundiko sekretario jeneral gisa.

(1).- Urriaren 28-an. Etchepare jaun miriku zenak bere "Buruxketan" aipatu zituen haren lehen meza eguneko bazkari eta misionest.

Pariseko **Eskualzaleen Biltzarrak** euskararen erakasteko kursoak antolatu zituelarik, Aita Chabagno-k on hartu zuen maisu jartzea eta hainitz urtez jarraiki zen lan horri. Hortakotz ere Euskaltzaindiak laguntzale izendatu zuen, ikusirik nolako jakitate eta karrarekin ari zen bere sailean.

Xahartu-ta itzuli zen bere sorherrirat, hain maite zuen Aldude-Eznazu xokorat, eta han egon ibiltzeko on zena. Liburu eta paper zaharretan ikerka laket zuen, bereziki Kintu-ko eta Baigorriko eskualdeko ixtorioaz ezin asea eta non nahiri gogotik mintzo.

Indarrak juaitearekin, Tarn-eko Caponne departamendurat jo zuen, La Vill-Dieu du Temple herriaren ondoan bizitzeko, Montbeton-eko apez Xahartegian.

Han itzali da pollikifio, arta onez eta otoitzez inguratua.

Adinbatetakoek ez dute ahantziko apez eta euskalzale suhar hori.

P. Lafitte